**IRURTZUNGO UDALA (NAFARROA)**
**Foruen Plaza, z/g**
**31860 Irurtzun**

AYUNTAMIENTO DE IRURTZUN (NAVARRA)
Plaza de los Fueros, s/n
31860 (Irurtzun)

# IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
# *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

Irurtzunen, bi mila eta hogeita biko abenduaren 22an, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ez - ohiko bilkura egiteko, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira Udalbatzako zinegotzi hauek:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 22 de diciembre de dos mil veintidós se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión extraordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los concejales y las concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:*

Agurtzane Garijo Peralta andrea (EH Bildu).
Ana Balda San Juan andrea (EH Bildu).
Ana Santander Lizaso andrea (EH Bildu).
Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna (EH Bildu).
Eduardo Murugarren Frances jauna (EH Bildu).
Joseba Royo García jauna (EH Bildu).
Enrique Tenorio Ruiz jauna (Navarra Suma).

*Doña Agurtzane Garijo Peralta (EH Bildu).*
*Doña Ana Balda San Juan (EH Bildu).*
*Doña Ana Santander Lizaso (EH Bildu).*
*Don Antonio Ollakarizketa Elizondo (EH Bildu).*
*Don Eduardo Murugarren Francés (EH Bildu).*
*Don Joseba Royo García (EH Bildu).*
*Don Enrique Tenorio Ruiz (Navarra Suma).*

Ezin etorria adierazi dute Naiara Gartzia Royo andreak (EH Bildu) eta Luis Enrique de la Calle Moreno jaunak (Navarra Suma). Halaber, Domingo Goñi Sarasola jauna (Navarra Suma) ez da bertaratu.

*Excusan su asistencia Doña Naiara Gartzia Royo (EH Bildu) y Don Enrique de la Calle Moreno (Navarra Suma). Asimismo, no asiste Don Domingo Goñi Sarasola (Navarra Suma).*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Saioari 19’30ean eman zaio hasiera.

*Se da inicio a la sesión siendo las 19’30 horas.*

Alkateak Kontu - hartzailetzatik bidalitako puntu bat premiazkoa dela planteatu du. Puntu horren bidez, bosgarren aurrekontu - aldaketa proposatu da, Toki Ogasunetik zirkular batera iritsi delako. Zirkular horrek jakinarazi du Determinazio Libreko funtsak apirilaren 1a baino lehen fakturatu behar zirela eta Udal honek Barazkigunearen obran erabili zituela, ordainketa geroagokoa izanik. Beraz, funts horiek 2023ko ekitaldiari lotuta geratuko lirateke.

*El Alcalde plantea la urgencia de un punto enviado desde Intervención, por el que se propone una modificación presupuestaria número cinco, debido a que ha llegado a una circular desde Hacienda Local que comunica que los fondos de Libre Determinación tenían que haberse facturado antes del 1 de abril y este Ayuntamiento los había empleado en la obra del Barazkigune, que es posterior, por lo que dichos fondos se quedarían afectados al ejercicio de 2023.*

Gaiaren urjentzia bozkatu da, eta aho batez onartu da.

*Se vota la urgencia del punto, que es aprobada por unanimidad.*

**1.- 2022ko urriaren 21ean ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 21 de octubre de 2022.***

2022ko urriuaren 21eko osoko bilkuraren aktari buruzko eztabaidan hitzartzerik izan gabe bozkatu da, eta aho batez onartu da.

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión plenaria del día 21 de octubre de 2022, que sin toma de palabras queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2022/268etik – 2022/308 ebazpenera.**

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 268/2022 hasta la 308/2022.***

Alkatetzaren ebazpenei buruz hitz egiteko txanda hasi da. Ebazpen horien zerrenda bilkurako gainerako dokumentazioarekin batera bidali zen. Ez da hitzartzerik egon eta Udalbatza 2022/268 ebazpenetik 2022/308 ebazpenera jakitun geratu da.

*Se abre el turno de palabras sobre las resoluciones de alcaldía cuya relación se envió junto al resto de documentación de la sesión, pero no hay toma de palabras, dándose el Pleno por enterado de las resoluciones de alcaldía 268/2022 a la 308/2022.*

**3.- 2022/3 aurrekontu moldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***3.- Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 3/2022, si procede.***

Alkateak gaiaren sarrera egin du, eta Batzordean adierazitakoa gogorarazi du: hirugarren eta bosgarren puntuak aurrekontu - aldaketa desberdinak dira: hirugarrena langile - gastuari buruzkoa da, 2022ko

*El Alcalde introduce el punto, recordando lo informado en Comisión: tanto el tercer punto como el quinto son diferentes modificaciones presupuestarias: la tercera es relativa al gasto de personal, debido al incremento*

urtarrila arteko atzeraeraginezko izaerarekin 1,5eko igoeraren ondorioz, eta, besteak ganadu - azokaren partidan kokatutako beste bi partidari dagokien gastua, bi mila seiehun eta hamabost eurokoa, eta kontziliazio - programakoa, ehun eta berrogeita hamazazpi eurotan handitu dena.

*del 1,5 con carácter retroactivo desde enero del 2022 y otras el gasto correspondiente a dos partidas más encuadradas en la partida de la feria de ganado que se ha incrementado en dos mil seiscientos quince euros y en el programa conciliación en ciento cincuenta y siete euros.*

Aldaketa horiek diruzaintzako gerakinaren kargura izatea proposatzen da, 87.293 euro guztira, gehi 2.478 euro Administrazio Elektronikoak jasotako dirulaguntzaren partidatik. Beraz, proposatutako aldaketa 89.772,06 eurokoa da.

*Se propone que estas modificaciones vayan a cargo del remanente de tesorería en un total de 87.293 euros, más 2.478 euros de la partida de la subvención recibida por la Administración Electrónica. Por tanto, la modificación que se propone 89.772,06 euros.*

Gaia bozkagai jarri da, hautetsi batek ere bere hitz - txanda erabili ez duelako. **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Se somete el asunto a votación sin que ninguna persona electa haya hecho uso de su turno de palabras, siendo que **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Aurrekontuaren 2022/3 moldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 3/2022.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean jasotakoaren arabera, onartutako aurrekontu-moldaketak Idazkaritzan egongo dira 15 egun baliodunez ikusgai, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Epe hori igaro ondoren erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira aipatutako moldaketak.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

**4.- 2022/4 aurrekontu moldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

Alkateak 4. aurrekontu - aldaketaren proposamena azaldu du, Batzordean ere azaldu zena. Esan du hiru programatatik abiatzen dela: lehenengoa, Bide Berdearen zuzkidura, aurrekontu parte - hartzaileen barruan sartzen dena; bigarrena, Gizarte Segurantza, bizikidetza - diagnostikoa egiteko gastuari buruzkoa (122,05 euro); eta hirugarrena, genero - indarkeriaren programari buruzkoa. Guztira, gastuaren hazkundea 23.726,98 eurokoa da, eta diruzaintzako gerakinaren eta genero - indarkeriaren aurkako estatu - itunaren bidez jasotako dirulaguntzaren bidez finantzatuko litzatekeena; guztira, 23.726,98 euro finantzatuko dira.

Gaia bozkatu da hitzartzerik izan gabe eta **Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu bertaratutakoen aho batez:**

LEHENENGOA.- Aurrekontuaren 2022/4 moldaketa hasiera batez onartzea.

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean jasotakoaren arabera, onartutako aurrekontu-moldaketak Idazkaritzan egongo dira 15 egun baliodunez ikusgai, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Epe hori igaro ondoren erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira aipatutako moldaketak.

***4.- Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 4/2022, si procede.***

*El Alcalde expone la propuesta de modificación presupuestaria número 4, también explicada en Comisión. Dice que parte de tres programas: uno la dotación de Vía Verde que entraría dentro de lo que son los presupuestos participativos, en segundo lugar la Seguridad Social relativa al gasto para la realización del diagnóstico de convivencia que serían 122,05 euros y en tercer lugar la relativa al programa de violencia de género. En total el incremento del gasto viene a ser de 23.726,98 euros, a financiar a través del remanente de tesorería y de la subvención recibida por el Pacto de Estado contra la violencia de género, financiando en total 23.726,98 euros.*

*Sometido el asunto a votación sin que haya toma de palabras,* ***la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, adopta los siguientes acuerdos:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 4/2022.*

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen*

*reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

**5.- 2023ko plantilla organikoaren onespena, hala badagokio.**

***5.- Aprobación inicial de la Plantilla Orgánica del año 2023, si procede.***

Alkateak adierazi du onartutako azken plantilla organiko bera dela. Idazkariak zehaztu du egonkortzera atera diren lanpostuei izartxoak jarri zaizkiela.

*El Alcalde indica que es la misma plantilla orgánica que la última aprobada. La Secretaria especifica que a los puestos que han salido a estabilización se les han puesto asteriscos.*

Gaia eztabaidagai jarrita, hitzik hartu gabe, bozkatu egin da, eta **bertaratutako hautetsien aho batez erabaki da:**

*Sometido el asunto a debate sin que se tomen palabras, se procede a votar, siendo el resultado que,* ***por unanimidad de las presentes, se acuerda:***

LEHENENGOA.- 2023. urteko plantilla organikoa hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica para el año 2023.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, onetsitako plantilla idazkaritzan egongo da aztergai 15 egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak egiteko aukera izan dezaten. Epe hori igaro eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la plantilla aprobada se expondrá en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobada definitivamente, si transcurrido dicho plazo, no se formulasen reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

**6.- 2023ko lanpostuen zerrendaren onespena, hala**

***6.- Aprobación de la Relación de Puestos de***

**badagokio.**

***Trabajo del año 2023, si procede.***

Alkateak adierazi du egutegia langileekin adostuta dagoela.

*El Alcalde indica que es la misma que la última aprobada.*

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2023. urteko Lanpostuen Zerrenda hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2023.*

BIGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

**7.- 2023rako Lan Eskaintza Publikoaren onespena, hala badagokio.**

***7.- Aprobación de la Oferta Pública de Empleo para 2023, si procede.***

Alkateak azaldu du plantilla organikoko 8. lanpostua dela, Zerbitzu Anitzeko ofiziala, Lan Eskaintza Publiko honetan sartutakoa. D mailako lanpostua da, lanaldi osokoa; euskaran 2. hizkuntza - eskakizuna du, eta lanpostuaren %20,99ko eta mailaren %12 osagarriak ditu. Gaur egun Javier Almirantearena betetzen ari den plaza da. Proposatzen da 2023an deialdia ateratzea, funtzionario izaerara bihurtzeko.

*El Alcalde explica que la plaza incluida en esta Oferta Pública de Empleo es la plaza número 8 de la plantilla orgánica, que es oficial de Servicios Múltiples. Es una plaza de nivel D, a jornada completa, con el perfil lingüístico 2 euskera y complementos del 20'99% de Puesto de Trabajo y del 12% de Nivel. Es la plaza que a día de hoy está ocupando Javier Almirantearena. Se propone que durante el año 2023 salga la convocatoria a funcionarizar.*

| **PLAZA KOPURUA** | **IZENA ETA ZENBAKIA** | **MAILA** | **HIZKUNTZA PROFILA** | **OSAGARRIAK** |
|---|---|---|---|---|
| ***NÚMERO DE PLAZAS*** | ***DENOMINACIÓN Y NÚMERO*** | ***NIVEL*** | ***PERFIL LINGÜÍSTICO*** | ***COMPLEMENTOS*** |
| 1 | 08.- Zerbitzu Anitzetako Ofiziala / *Oficial de Servicios Múltiples* | D | 2 | LO / *CPT* %20'99% M/*N* %12% |

Enrique Tenorio jaunak hartu du hitza, eta esan du bere taldea enpleguaren alde dagoela, baina badira plazara aurkeztu nahi duten eta euskara jakitea

*Toma la palabra don Enrique Tenorio, para decir que su grupo está a favor del empleo, pero que hay gente que se quiere presentar a la plaza y no puede acceder*

eskatzen denez ezin duten pertsonak. Gehitu du euskara jakitea beharrezkoa iruditzen zaiela, baina ez dela baztertzailea izan behar.

*por exigirse conocimiento de euskera. Añade que les parece necesario saber euskera, pero que no debe ser eliminatorio.*

Alkateak erantzun du bere taldeak uste duela euskara nahitaezkoa izan behar dela, eta diskriminazioa Foru Komunitatea zatitzen duen zonakatze linguistikoak eragiten duela. Ondorioz, bere taldeak uste du gutxienez Eremu Euskaldunean (Irurtzun bertan dago), euskara jakitea nahitaezkoa izan behar dela administrazioko langileek bi hizkuntzetan duintasunez hitz egin ahal izateko, bai Udalaren barne - harremanetan, bai eta administratuekiko harremanetan ere.

*El Alcalde responde que su grupo entiende que debe ser preceptivo el euskera, y que la discriminación viene dada por la zonificación lingüística que divide la Comunidad Foral, por lo que, al menos en la Zona Vascófona (que es en la que se ubica Irurtzun), debe ser preceptivo el conocimiento de euskera para que el personal de la administración se pueda expresar dignamente en los dos idiomas, tanto en las relaciones internas del Ayuntamiento como con las personas administradas.*

Enrique Tenorio jaunak azpimarratu du, bere taldearen iritziz, euskaraz ez dakienak ezin duela plaza lortu, eta ezagutza baloratu egin behar dela, baina ez dela derrigorrezkoa izan behar.

*Don Enrique Tenorio insiste en que, en opinión de su grupo, quien no conoce el euskera no puede optar a la plaza, debiendo ser el euskera valorado, pero no preceptivo.*

Ana Balda andreak hartu du hitza, eta adierazi du eskatutako titulazioak kanpoan uzten dituela titulazio hori ez duten pertsonak, eta horretarako ikasi egin behar den bezala, deialdi publikoetan eskatzen diren baldintzak betetzeko euskara ere ikasi beharra dagoela.

*Toma la palabra doña Ana Balda, indicando que la titulación requerida también excluye a las personas que no la tienen, y que debe estudiarse para ello, de la misma manera que puede estudiarse euskera para cumplir con los requisitos exigidos en las convocatorias públicas.*

Alkateak gaineratu du bere udal - taldea nahiko laxoa dela zentzu horretan; izan ere, plantillako plazetarako baino ez da eskatzen euskara jakitea, eta ez da eskatzen urtero aldi baterako ateratzen diren plazetarako (udaran atera ohi diren zerbitzu anitzen lanpostuak, garbiketa, etab.), nahiz eta lanpostu horietan ere euskara jakitea eska daitekeen. Ordea, bere taldeak ulertzen du Irurtzunen modu jarraituan lan egin nahi duen pertsona batek euskara ezagutu behar duela.

*Añade el Alcalde que su grupo municipal es bastante laxo en ese sentido, ya que únicamente se exige el conocimiento de euskera para las plazas de plantilla, no siendo requerido para ninguna de las plazas que anualmente se convocan para trabajos temporales (servicios múltiples en verano, limpieza, etc.), a pesar de que pudiera exigirse el conocimiento de euskera también en estos puestos. Sin embargo, entiende su grupo que una persona que aspire a trabajar en Irurtzun de manera continua, debe ser conocedora del*

*euskera.*

Eduardo Murugarren jaunak gaineratu duenez, euskara dakiten pertsona gehienek gaztelania ere badakitenez, logikotzat jo ohi dela euskara ez dela hain beharrezkoa, baina herritarrek eskubidea dutela Udaleko langileekin harremanak euskaraz izateko, hala nahi badute.

*Añade don Eduardo Murugarren que, como la inmensa mayoría de las personas conocedoras de euskera sabe también castellano, se da por hecho que el euskera no es tan necesario. Sin embargo, a las personas les asiste el derecho a relacionarse con el personal del Ayuntamiento en euskera si así lo desean.*

Enrique Tenorio jaunak esan du zerbitzu anitzeko ofizial lanpostu baterako ikasketa – maila jakin bat eskatu behar dela, ez hizkuntza jakitea, nahiz eta baloratu egin behar den.

*Don Enrique Tenorio dice que para una plaza de oficial de servicios múltiples, debe exigirse un nivel de estudios, no el conocimiento del idioma, a pesar de que sí que debe ser valorado.*

Alkateak erantzun du, ikasketa - mailaren barruan, titulu akademikoa ez ezik, euskararen ezagutza ere sartzen dela, eta ez dela hizkuntza bat jakitea baztertu behar. Ezagutzen ez duenak ez ditu betetzen plantilla organikoan eskatzen diren baldintzak eta, beraz, ezin du lanpostua eskuratu.

*Responde el Alcalde que, dentro del nivel de estudios, se incluye, además de la titulación académica, el conocimiento del euskera, y que no debe ningunearse el conocimiento de un idioma. Quien no lo conoce, no cumple los requisitos exigidos en la plantilla orgánica y, por tanto, no puede optar a la plaza.*

Ana Balda andreak gaineratu du euskararen ezagutza baldintza gisa eskatzea dela herriko pertsonak udal - langileei nahi duten hizkuntzan zuzendu ahal izatea bermatzeko modu bakarra.

*Doña Ana Balda añade que exigir el conocimiento del euskera como requisito es la única manera de garantizar que las personas del pueblo se puedan dirigir al personal municipal en el idioma que elijan.*

Gaia bozkagai jarri da eta, **EH Bilduko zinegotzien aldeko bozkarekin eta Navarra Sumako zinegotziaren abstentzioarekin, honako erabaki hauek hartu dira:**

*Se somete el asunto a votación y, **con los votos a favor de los ediles de EH Bildu y la abstención del edil de Navarra Suma, se adoptan los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Espedientean jasotako Lan Eskaintza Publikoa onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar la Oferta Pública de Empleo recogida en el expediente.*

BIGARRENA.- 2023. urte naturalaren barruan lanpostua betetzeko hautaketa - probak deitzea.

*SEGUNDO.- Convocar, dentro del año natural 2023, las pruebas selectivas de ingreso para la provisión del puesto.*

HIRUGARRENA.- Akordio hau argitaratzea.

*TERCERO.- Dar publicidad a este acuerdo.*

**8.- 2023ko ordenantza fiskalen hasierako onespena, hala badagokio.**

Alkateak azaldu duenez, ordenantza fiskal hauetan aurreko ordenantzekin alderatuta dauden aldaketak oso txikiak dira, eta tipo gehienak bere horretan mantentzen dira 2022koekin alderatuta. Musika Eskolako Eskola Kontseiluak proposatuta egin dira aldaketa bakarrak. Kontseiluak bilera egin ondoren, matrikulari buruzkoa aldatzea erabaki zen, bai eta eskolan matrikulatutako familia - unitateko bigarren kideei eta familia ugariei egiten zaien hobariaren murrizketa ere (kuotaren murrizketaren %40tik %25era).

Gainerako ordenantza fiskal guztiak berdin mantentzen direla zehazten du.

Enrique Tenoriok galdetu du ea inguruko udalak ados dauden musika - eskolako kuoten aldaketa horiekin.

Aitor Larraza jaunak erantzun du inork ez duela horri buruzko iritzirik eman, eta loteslea dela Musika Eskolako Kontseiluaren erabakia, beharrezko quorumarekin hartu zena.

Hitzartzerik egon gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- Hasierako onespena ematea 2023rako zerga - tasei.

BIGARRENA.- 2023rako tasen tarifei hasierako onespena ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jendaurrean jartzeko

***8.- Aprobación inicial de las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2023.***

*Expone el Alcalde que las modificaciones que hay en estas ordenanzas fiscales con respecto a las anteriores son mínimas, manteniéndose la mayoría de los tipos congelados con respecto a los de 2022. Las únicas modificaciones que hay son a propuesta del Consejo Escolar de la Escuela de Música en el que, después de una reunión del Consejo, se decidió modificar la relativa a la matrícula y una rebaja en la bonificación que se hace a segundos miembros de la unidad familiar matriculados en la escuela y a familias numerosas que pasaría del 40% al 25% de la reducción de la cuota.*

*Especifica que todas las demás ordenanzas fiscales se mantienen igual.*

*Pregunta don Enrique Tenorio si los Ayuntamientos de la zona están de acuerdo con estas modificaciones de cuotas de la Escuela de Música.*

*Responde don Aitor Larraza que nadie se ha pronunciado al respecto, siendo vinculante la decisión del Consejo de la Escuela de Música, que fue adoptado con el quorum necesario.*

*Sometido el asunto a votación,* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente los tipos impositivos para el año 2023.*

*SEGUNDO.- Aprobar inicialmente las tarifas de las tasas para el año 2023.*

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de*

hilabeteko epea irekitzea, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartu dela ulertuko da, eta osorik argitaratuko da NAOen.

*un mes desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se presenten alegaciones la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el BON.*

**9.- Ondasunen balorazioari buruzko ponentziaren berrikuspenaren hasiera onestea eta Nafarroako Zerga Ogasunari informazioa eskatzea, hala badagokio.**

***9.- Aprobación del inicio de la revisión de la ponencia de valoración de los bienes y solicitud de información a la Hacienda Tributaria de Navarra, si procede.***

Alkateak gogorarazi du bosturteko bakoitzean balorazio - ponentzia berritu egin behar dela, eta azkena Irurtzunen 2017an berritu zela. Beraz, bozkagai jartzen dena Irurtzungo Udalak 2023an balorazio - ponentzia egiteko prozesua hasteko erabakia da.

*El Alcalde recuerda que cada quinquenio hay que renovar la Ponencia de Valoración y que la última en Irurtzun se hizo en 2017. Por tanto, lo que se somete a votación es el inicio del proceso por el que el Ayuntamiento de Irurtzun acuerda realizar la ponencia de valoración en 2023.*

Hitzik hartu gabe, **Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:**

*Sin haber toma de palabras,* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Irurtzungo Balorazio Ponentzia berritzeko espedienteari hasiera ematea.

*PRIMERO.- Dar inicio al expediente para la renovación de la Ponencia de Valoración de Irurtzun.*

BIGARRENA.- Prozeduraren izapidetzearekin jarraitzea.

*SEGUNDO.- Continuar con la tramitación del procedimiento.*

**10.- Irurtzungo Udal Planeko egiturazko aldaketa puntualaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***10.- Aprobación inicial de la modificación puntual estructurante del Plan Municipal de Irurtzun, si procede.***

Alkateak puntua kentzea proposatu du, aurreko puntuan onartua izan zelako.

*El Alcalde propone la retirada del punto, ya que había sido aprobado en el Pleno anterior.*

Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:

*El Pleno, por unanimidad, acuerda:*

BAKARRA.- Puntua gai ordenetik kentzea.

*ÚNICO.- Retirar el punto del orden del día.*

**11.- Udal Planaren S1-U3-U4 egikaritze - unitatearen**

***11.- Aprobación definitiva del proyecto de***

**urbanizazio - proiektuaren behin betiko onespena.**

***urbanización de la unidad de ejecución S1-U3-U4 del Plan Municipal.***

Alkateak esan du Larraun kalean hogeita hamar partzela ateratzeko urbanizazio - proiektuaren behin betiko onarpena dela.

*El Alcalde dice que se trata de la aprobación definitiva del proyecto de urbanización para sacar treinta parcelas en la zona de la calle Larraun.*

Ez da hitzik hartu, beraz, zuzenean bozkatu da. **Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:**

*No hay toma de palabras, por lo que se pasa directamente a votación.* ***El Pleno, por unanimidad, ha adoptado el siguiente acuerdo:***

LEHENENGOA.- Udal Planaren S1-U3-U4 egikaritze - unitatearen urbanizazio - proiektua behin betiko onestea.

*PRIMERO.- Aprobar definitivamente del proyecto de urbanización de la unidad de ejecución S1-U3-U4 del Plan Municipal.*

BIGARRENA.- Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onespenaren erabakia NAOn argitaratzea, eta dokumentuaren ale bat Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari bidaltzea, onetsi eta hurrengo hamar egunen barruan, kontrolerako emandako txosten teknikoekin batera, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoaren arabera.

*SEGUNDO.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva del Proyecto de Urbanización en el BON y enviar un ejemplar del documento al Departamento de Medio Ambiente, Ordenación del Territorio y Vivienda dentro de los diez días siguientes a su aprobación, junto con los informes técnicos emitidos para su control de acuerdo con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.*

HIRUGARRENA.- Erabaki horiek sustatzaileari jakinaraztea, administrazio - bidea amaitzen dutela adieraziz eta legez dagozkion errekurtsoen araubidea adieraziz.

*TERCERO.- Notificar estos acuerdos al promotor, indicando que ponen fin a la vía administrativa con indicación del régimen de recursos que legalmente correspondan.*

**12.- Irurtzungo udal planeko S1-U8 unitateko 1. Oinarrizko unitatean (2. Poligonoko 640. katastro-lurzatia, Beheitiko Erreka kaleko 2. Zenbakia) xehetasun - azterketaren behin - betiko onespena.**

***12.- Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la unidad básica 1 de la unidad S1-U8 del Plan Municipal de Irurtzun, parcela catastral 640 del polígono 2, en la calle Beheitiko Erreka, 2.***

Alkateak azaldu du Beheitiko Erreka kalean egin nahi den urbanizazioaren sustatzaileak aurkeztu zuen xehetasun - azterlana behin betiko onartzea proposatzen dela.

*El Alcalde explica que se propone la aprobación definitiva del Estudio de Detalle que presentó el promotor de la urbanización que se quiere hacer en la calle Beheitiko Erreka.*

Inork hitzik hartu gabe, gaia bozkatu egin da eta **Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:**

*Sin que haya toma de palabras, el asunto es sometido a votación y **el Pleno, por unanimidad, adopta los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Irurtzungo udal planeko S1-U8 unitateko 1. Oinarrizko unitatean (2. Poligonoko 640. katastro-lurzatia, Beheitiko Erreka kaleko 2. Zenbakia) xehetasun - azterketa behin betiko onestea.

*PRIMERO.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la unidad básica 1 de la unidad S1-U8 del Plan Municipal de Irurtzun, parcela catastral 640 del polígono 2, en la calle Beheitiko Erreka, 2.*

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea xehetasun azterlanaren dokumentu teknikoarekin batera.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a las personas interesadas para su conocimiento y efectos y publicarlo en el Boletín Oficial de Navarra junto con el documento técnico del estudio de Detalle.*

**13.- Eguzki - energia berriztagarriko instalazioen udal - ordenantzaren hasierako onarpena, hala badagokio.**

***13.- Aprobación inicial de la ordenanza municipal de instalaciones de energía solar renovable, si procede.***

Alkateak esan du, ordenantzaren zioen azalpenean adierazten den bezala, bere taldeak uste duela Irurtzungo Udalak eguzki - energia berriztagarriko udalerriko instalazioak arautu behar dituela; izan ere, horrelako instalazioen eskaerak gora doaz, eta ordenantza hau proposatzen da irizpide bateratu bat emateko.

*El Alcalde dice que, tal y como se indica en la exposición de motivos de la ordenanza, su grupo cree que desde el Ayuntamiento de Irurtzun debe regular las instalaciones en el municipio de energía solar renovable, ya que las peticiones de este tipo de instalaciones van en aumento y se propone esta ordenanza para dar un criterio unificado.*

Gaineratu du, bestalde, hobariekin horrelako plakak instalatzea sustatzeko helburuarekin jarduten dela. Asmoa litzateke instalazioari dagokion EIOZren zergaren %75eko hobaria ematea. Ildo horretako zehaztapenak EIOZren zerga - ordenantzan jasota daude: gutxieneko kuota 76 eurotan mantentzen da, eta hobari honek zergaren kuota 76 eurotik beherako zenbatekoetara jaitsiko balu, aipatutako gutxieneko kuota mantenduko litzateke. Gainera, zehazten du hobaria materialaren exekuzioaren zerga - oinarriaren gainean egiten dela, BEZa kontatu gabe.

*Añade que, por otra parte, se actúa con el objetivo de promover la instalación de este tipo de de plantas mediante bonitifaciones. La idea sería bonificar en un 75% el impuesto del ICIO correspondiente a la instalación de las mismas. Las especificaciones en este sentido vienen reflejadas en la ordenanza fiscal del ICIO: se mantiene la cuota mínima en 76 euros, siendo que, en caso de que esta bonificación rebajara la cuota del impuesto a cantidades inferiores a 76 euros, se mantendría la mencionada cuota mínima. Especifica, además, que la bonificación se realiza sobre la base imponible de la ejecución de material,*

*IVA excluido.*

Hitz egiteko txanda irekita, inork ez du erabili, eta, beraz, gaia bozkatu egin da. **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Abierto el turno de palabras, nadie ha hecho uso de la misma, por lo que se procede a someter el asunto a votación.* ***La Corporación, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Eguzki - energia berriztagarriko instalazioen udal - ordenantza hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la ordenanza municipal de instalaciones de energía solar renovable.*

BIGARRENA.- Honako akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta argitaratzen den dataren biharamunetik hasita hilabeteko jendaurreko epea irekitzea. Alegaziorik egongo ez balitz, araudia behin betikotasunez onartutzat eman eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko litzateke.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de un mes, desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se presenten alegaciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Navarra.*

**14.- Alkatetzaren 303/2022 Ebazpena berrestea, 2022ko ekitaldiko %0,7ko deialdian proiektuak aurkezteko epea irekitzeari buruzkoa.**

***14.- Ratificación de la Resolución de Alcaldía 303/2022, sobre la apertura del plazo para la presentación de proyectos en la convocatoria del 0'7% relativa al ejercicio 2022.***

Proiektuak aurkezteko hilabeteko epea irekitzea proposatzen da. Dinamika beste urte batzuetakoa bera izango da: lantalde batek erabakitzen du, ezarritako irizpide batzuetan oinarrituta, zein proiektu diren esleipendunak.

*Se propone la apertura del plazo es de un mes para presentar los proyectos. La dinámica es la misma que otros años: hay un grupo de trabajo que en base a unos criterios establecidos decide y presenta qué proyectos son los resultantes.*

Hitzik hartu gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:**

*Sin tomar palabras en el turno para las mismas,* ***la Corporación, por unanimidad, adopta los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Alkatetzaren 303/2022 Ebazpena berrestea. Ebazpen hau 2022ko ekitaldiko %0,7ko deialdian proiektuak aurkezteko epea irekitzeari buruzkoa da.

*PRIMERO.- Ratificar a Resolución de Alcaldía 303/2022, sobre la apertura del plazo para la presentación de proyectos en la convocatoria del 0'7% relativa al ejercicio 2022.*

BIGARRENA.- Akordio hau argitaratzea.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo.*

**15.- 2022. urteko kirol erakundeentzako laguntza ordaintzeko onespena, Xota erakundeak antolatzen duen autobusari dagokiona, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du puntu honetan eztabaidatu eta bozkatzen dena Xota autobusaren funtzionamenduari buruzko ordainketa dela, hau da, 5.400 euroko ordainketa onartzea.

Hitzartzerik izan gabe, bozketari ekin zaio. **Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:**

LEHENENGOA.- Ekarpena onartu eta ordaintzea, espedientean jasotako proposamenarekin bat etorriz.

BIGARRENA.- Udal kontuhartzailetzari erabaki hauen berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

HIRUGARRENA.- Akordio hauek interesdunei jakinaraztea, beren ezaguera eta ondorioetarako.

***15.- Autorización de pago de ayudas a entidades deportivas de 2022, relativa al autobús organizado por la entidad Xota, si procede.***

*El Alcalde explica que lo que se somete a debate y votación en este punto es el pago relativo al funcionamiento del autobús del Xota. Aprobando el abono de 5.400 euros.*

*Sin que haya uso de palabras en el turno, se procede a votación.* ***La Corporación, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Conceder y abonar la aportación, de acuerdo con la propuesta obrante en el expediente.*

*SEGUNDO.- Dar traslado de este acuerdo a la Intervención municipal, para su conocimiento y efectos.*

*TERCERO.- Notificar estos acuerdos a las personas interesadas, para su conocimiento y efectos.*

**16.- Nitxoa betiko uztea, hala badagokio.**

Alkateak esan du Antonia Ortiz Martil andreak betiko nitxoaren eskaera egin duela.

Hitzartzerik egon gabe, Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- C eremuko E kaleko 96. nitxoa Antonia Ortiz Martil andreari betiko uztea.

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Eskatzaileari jakinaraztea lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasa 749,00 eurokoa dela. Ordaintzeko epea hilabetekoa dela, erabaki hau

***16.- Cesión de nicho a perpetuidad, si procede.***

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de nicho a perpetuidad por parte de Doña Antonia Ortiz Martil.*

*Sin haber toma de palabras, el Pleno, por unanimidad, acuerda:*

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el nicho Nº 96 de la calle E de la zona C a Doña Antonia Ortiz Martil.*

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

*TERCERO.- Notificar a la solicitante que la tasa a abonar por esta cesión asciende a 749,00 euros a abonar en el plazo de un mes, a contar desde el día*

jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*siguiente al de la notificación de este acuerdo.*

**17.- Irurtzungo Klima eta Energia Jasangarrirako Plana onartzea.**

***17.- Aprobación del Plan para el Clima y la Energía Sostenible (PACES) de Irurtzun.***

Alkateak azaldu duenez, Sakanako udalak (horien artean Irurtzungo Udala) 2019ko Alkateen Itunari atxiki ondoren, Nasuvinsak Klima eta Energia Jasangarrirako Plan bat egin du Sakana osorako. Orain, udalak dokumentuan bertan eskatzen den ekintza - planari atxikitzea proposatzen da. Alkateak esan du bere talde politikoaren ustez, plan honetan Irurtzungo Udala dagoeneko gauzatzen ari den ildo orokorrak jasotzen direla eta, beraz, gaur egun lantzen ari denari berrespena egitea da proposatzen dena.

*El Alcalde explica que, tras la adhesión de los ayuntamientos de Sakana, entre los que se encontraba el Ayuntamiento de Irurtzun, al Pacto de Alcaldías en 2019, Nasuvinsa hizo un Plan para el Clima y la Energía Sostenible (PACES) en toda Sakana. Ahora se propone que los Ayuntamientos se adhieran al plan de acción que exige el propio documento. Entiende su grupo político que en este plan se recogen líneas generales que el Ayuntamiento de Irurtzun ya viene llevando a cabo, por lo que se trata de refrendar lo que a día de hoy ya se está trabajando.*

Hitz egiteko txanda irekita, inork ez du erabili, eta, beraz, gaia bozkatu egin da. **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Sometido el asunto a debate, no hay toma de palabras y se procede a votación, adoptando **la Corporación, por unanimidad, los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Klima eta Energia Jasangarrirako Plana onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar el Plan para el Clima y la Energía Sostenible (PACES).*

BIGARRENA.- Akordio hauek erakunde sustatzaileei jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar estos acuerdos a las entidades impulsoras.*

**18.- Hala badagokio, osasun sistema publikoari buruzko mozioaren onartzea, EH Bilduko udal taldearen proposamenez.**

***18.- Si procede, aprobación de la moción acerca del sistema sanitario público, a propuesta del Grupo Municipal de EH Bildu.***

Alkateak esan du mozio honek osasun - sistema publikoa, batez ere lehen mailako arreta, gaur egun jasaten ari den narriadura nabarmentzen duela. Pandemiaren ondoren, ez dira berriro aurretik zeuden kalitate - estandarrak lortu. Hori dela eta, honakoa eskatzen da: Oinarrizko Osasun Laguntza eta osasun publikoa indartzea deribazioak eta itunak etetea

*El Alcalde dice que se trata de una moción que destaca el deterioro que está sufriendo el sistema público de salud a día de hoy, sobre todo la atención primaria. Después de la pandemia no se han vuelto a recoger los estándares de calidad que se tenían anteriormente y lo que se solicita es el reforzamiento de la Atención Primaria y la salud pública, el cese de derivaciones y*

osasungintza pribatuarekin, plantillak finkatzea plantilla egonkorragoak lortzeko, hirugarren adinekoentzat arreta - eredu publiko baterantz egindako aurrerapausu egiaztagarriak, eta osasun mentaleko sistema birformulatzea eta prebentziora bideratzea.

*conciertos con la sanidad privada, la consolidación de las plantillas para lograr plantillas más estables, avances contrastables hacia un modelo de atención a las personas de la tercera edad de carácter público y la formulación del sistema de salud mental con su orientación hacia la prevención.*

Hitzik hartu gabe, **Udalbatzak, EH Bilduko hautetsien aldeko botoekin eta Navarra Sumako zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:**

*Sin haber toma de palabras, **la Corporación, con los votos a favor de los y las ediles de EH Bildu y la abstención del edil de Navarra Suma, acuerda:***

LEHENENGOA.- EH Bilduko udal taldeak proposatutako mozioa onartzea, osasun sistema publikoari buruzkoa.

*PRIMERO.- Aprobar la moción propuesta por el grupo municipal de EH Bildu, acerca del sistema público de salud.*

BIGARRENA.- Erabaki hau elkarte sustatzaileari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar la adopción de este acuerdo a la asociación promotora.*

**19.- Erregu eta galderak.**

***19.- Ruegos y Preguntas.***

Alkateak idazkariari eman dio hitza, eta honek azaldu du, hainbat batzordetan aipatu den bezala, arazo bat sortu zela, Nafarroako Gobernuak Atakondoa ikastetxe publikoaren inguratzailearen obra baztertu baitzuen TIPean behin betiko sartzetik. Gogorarazi du obra hori hasiera batean Planean sartua zela, eta pandemian zehar gauzatu zela. Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean komunikazio ugari egon ziren, eta horien bidez argi geratu zen obra udan esleitu behar zela, eskola - egutegiari kalterik ez eragiteko. Nafarroako Gobernuko kide ezberdinek behin baino gehiagotan adierazi zioten Udalari ez zegoela arazorik, eta, beraz, obra lizitatu eta gauzatu egin zuten TIPean behin betiko sartu aurretik. Behin betiko zerrendaren ebazpena jasotzean, udalaren ustez, obra zerrendatik kanpo uztea ez zen ez legitimoa ez eta proportzionatua ere, eta, beraz, administrazioarekiko auzien bidera jo zen. Bide horretan epaia eman berri da, eta Irurtzungo

*El Alcalde cede la palabra a la Secretaria, quien explica que, como se ha venido comentando en diversas Comisiones, se había suscitado un problema, por el que Gobierno de Navarra había excluido la obra de la envolvente del Colegio Público Atakondoa de la inserción definitiva de en el PIL. Recuerda que se trata de una obra que se había incluido inicialmente en el Plan, y que se llevó a cabo durante la pandemia, siendo que se habían mantenido numerosas comunicaciones entre el Ayuntamiento y Gobierno de Navarra, por las que se había puesto de manifiesto la necesidad de licitar la obra en verano, para no afectar al calendario escolar. Por parte de Gobierno de Navarra se indicó en varias ocasiones al Ayuntamiento que no había problema, por lo que la obra fue licitada y ejecutada antes de su inclusión definitiva en el PIL. Entendiendo el Ayuntamiento que la exclusión de la obra de la lista definitiva no era ni legítima ni*

Udalari arrazoia ematen zaio, zeinak behin - behineko zerrendan ezarritako zenbatekoa jasoko baitu (39.000 euro inguru), eta, gainera, kostuak Nafarroako Gobernuari ezartzen zaizkio.

*proporcionada, se acudió a la vía contencioso-administrativa, en la que acaba de ser dictada sentencia, por la que se da la razón al Ayuntamiento de Irurtzun, que percibirá la cuantía fijada en la inclusión provisional, de unos 39.000 euros, y además con imposición de costas a Gobierno de Navarra.*

Enrique Tenorio jaunak hartu du hitza, eta salatu du garbitzaileek edukiontzi guztietako hondakinak jaso eta edukiontzi berdean utzi dituztela. Jarduera honen eta Udala gauzatzen ari den politiken arteko inkoherentzia nabarmendu du, politika horien bidez bereizketa eta birziklatzea sustatzen saiatzen ari baita. Ondorioz, langileei formakuntza ematea proposatu du.

*Don Enrique Tenorio toma la palabra para denunciar que el personal de limpieza ha sido visto recogiendo los residuos de todos los contenedores y depositándolos todos en el contenedor de color verde. Alerta de la incoherencia entre esta actuación y las políticas que está llevando a cabo el Ayuntamiento, por las que se está intentando impulsar la separación y el reciclaje. Propone, en consecuencia, una formación a los y las operarias.*

Alkateak erantzun du behin edukiontzi batean hainbat hondakin mota nahastu ondoren, jada ez duela balio birziklatzeko, baina, hala ere, formazio horiek ez liratekeela gaizki etorriko, eta proposamena jaso du.

*El Alcalde responde que una vez que en un contenedor han sido mezclados varios tipos de residuos, ya no sirve para el reciclaje pero que, no obstante, dichas formaciones no vendrían mal, y recoge la propuesta.*

Enrique Tenorio jaunak berriz ere hartu du hitza, eta jakinarazi du Intxaurreta kaleko bizilagunek kexa bat dutela beste bizilagun batek eraiki duen zementuzko egutera baten inguruan, espaloian sartzen baita. Alkateak erantzun du gaizki - ulertu bat egon zela lizentzia eskatzeko aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, eta interesdunarekin tratatu dela jada, eta adostu dela bi asteko epea (osoko bilkuraren hurrengo astean betetzen da epe hau) egoera itzultzeko.

*Vuelve a tomar la palabra don Enrique Tenorio para hacer saber que los y las vecinas de la calle Intxaurreta tienen queja acerca de una solana de cemento que invade la acera que ha construido otro vecino. El Alcalde responde que hubo un malentendido en base a la documentación presentada para la solicitud de la licencia, y ya se ha tratado con la persona interesada, acordando el plazo de dos semanas (que se cumplen la semana siguiente al pleno) para la reversión de la situación.*

**<u>20.- Urgentziazko puntua: 5/2022 aurrekontu-aldaketa onartzea, hala badagokio.</u>**

**<u>*20.- Punto de urgencia: Aprobación, si procede, de la modificación presupuestaria 5/2022.*</u>**

Saioaren hasieran, urgentzia bozkatzean, esan den bezala, aldaketa hori 72.372 eurokoa izango litzateke,

*Como se ha comentado al inicio de la sesión al votar la urgencia, esta modificación sería de 72.372 euros, que*

eta Kontu-hartzailetzari zirkular bat eman zaiolako dator. Zirkular horretan jakinarazten da aipatutako zenbatekoko partida, Irurtzungo Udalak Determinazio Askeko afektatu ziona, apirilaren 1a baino lehenago ordaindu behar zela; partida hori Barazkiguneko obrarako erabili zen, baina geroago ordaindu zen. Ondorioz, gaur egun egingo ez diren hiru partida erabili dira: hilerriko obrak, auditorio - proiektuaren ordainsariak eta herri - baratzeen obraren parte bat (72.372 euro guztira). Erabaki Libreko partida Irurtzungo Udalak datorren urtean egin nahi dituen inbertsioei afektatuta geratuko da. Beraz, aldaketa teknikoa da, gastua handitu gabe.

*viene dada a que se ha pasado circular a la Intervención, en la que se comunica que la afección que el Ayuntamiento de Irurtzun había hecho de la partida de Libre Determinación por la mencionada cantidad había que realizarla en los derechos reconocidos netos antes del 1 de abril; se utilizó esa partida para la obra del Barazkigune, pero que se pagó posteriormente a tal fecha, por lo que lo que se ha hecho ha sido utilizar tres partidas que a día de hoy no se van a ejecutar como son las obras del cementerio, los honorarios del proyecto de auditorio y en una parte la obra de los huertos comunales, que hacen el total de 72.372 euros. La partida de Libre Determinación irá afectada a inversiones que el Ayuntamiento de Irurtzun quiera hacer el que viene. Se trata, pues, de un cambio técnico sin que haya habido un incremento de gasto.*

Hitzen txanda irekita, inork ez du hitzik hartu. Gaia bozkagai jarrita, **Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:**

*Abierto el turno de palabras, nadie ha hecho uso del mismo. Se somete el asunto a votación y e**l Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Aurrekontuaren 2022/4 moldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 5/2022.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean jasotakoaren arabera, onartutako aurrekontu-moldaketak Idazkaritzan egongo dira 15 egun baliodunez ikusgai, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Epe hori igaro ondoren erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira aipatutako moldaketak.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 20:05ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 20:05 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Fecha: 2023.03.03 14:58:37 +01'00'

Alkatea / *El Alcalde*,

44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Firmado digitalmente por 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)
Fecha: 2023.03.03 14:51:04 +01'00'

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*